

ITSAS GIZONAK



Egun berriya alai eldu zan;
itzali ditu izarrak
eguzkiyaren albiñu luze
urreztatu zerutarrak,
Koncha galaya dizdiatuaz
gozabeterik baztarrak.

Itsas geldiya jostallukeriz
milizkatuaz ondarrak,
jaiki aziyaz beren lekutik
goizeko aize iparrak,
aztuaz lengo zakarkeriyak,
aztuaz lengo jazarrak.

Bi puntetatik an urrutiyen
itsas-zerua bakarrak
ikusten dira, aldendurikan
gaitzgille odoi nabarrak:
ezkutatuak itsas egazti
begi zorrotzdun azkarrak,
ezkutatutzen diran bezela
altzaidutikan chingarrak.

Turmoi orrorik ezta entzuten;
gordiak daude su-garrak,
eztu ekaitzen berri charrikan
bigalzen itsas aparrak;
eztu gallentzen aize chistuak
eztare kazkarabarrak.

Guziya dago loak artuba,

aztubak lengo negarrak
eta nagiyak joa bezela
negu beltzaren indarrak.

Kantauriako itsas zabala
paketsu ta soseguan,
uda garbiyan arkitutzen da
ibai legunen moduan;
baña jartzen da dirudiyela
gizon zital bat, neguan,
daukazkiyenak gorroto char ta
pozoikeriyak goguan,
alegindurik ezkutatzia
guziyak bere pechuan,
leguntasuna erakutsiyaz
ondo deizkiyon orduan.

¡Arraun mutillak! patroyak diyo
utzirik aparejuak,
ipar aldera lasai botiaz
goiz patarraren tejuak:
mutill indartsu pizkor sendoak
zimel altu ta bajuak,
eguzkiyaren indar sutsuak
umetandikan beztuak,
jaso dituzte arraun lodiyak
esku aldetik lotuak,

sartuaz itsas sosegutsuan
 paladan iya nastuak,
 purrukatuta jasoaz chorro,
 ziprizitiñ eta tantuak,
 argi berean diruditela
 chingar koloreztatuak.

Treñero liraiñ chukun polita
 arrai bat balitz bezela,
 laister dijoa mutur zorrotzez
 urak goitzen ditubela,
 bere *andaran* itsas berdea
 igarotuz berela,
 aurrera doa beldur gaberik
 egalaz dirudiyela,
 apar arrasto luze luzea
 bidean uzten dubela.

Jostatutzen da branka alchiaz
 itsaso gañeko perla,
 bogari mutill gaiñ gañekuak
 arrunt bultzazen dutela
 eta patroyen bide giyari
 amor ematen ziyela,
 aztu ezin dan estropada bat
 oroi azitzen zutela.

Bere ondoren bestea doa,
 bestea eta bestea,
 ogei pasiak izango ziran,
 ura zan nere ustea:
 Konchatik ariñ bi puntetara
 zuzendutzen ikustea,
 begiyak pozten zituen baña
 aninia penaz betea,
 gogoratziak zer gogorra dan
 beren urpeko nekea.

Neurrigabeko itsas zabala
 askoren oroitz tristea,

urdiñ leguna jzer biurtzen dan!
 ezliteke sinistea,
 ikaratutzen dubela bere
 bazterrera iristea.

Itsaso mutill bikaiñ bikaiñak
 denak ausartzaz beterik,
 bildurgarrizko lan gogor ortan
 abiyatubak gazterik,
 irten ziraden beren otordu
 eskasen billa pozturik,
 biyotz leyal ta koatjesuak
 indarrez sendo jantzirik,
 itsaso arro goiantiaren
 errayetara sarturik,
 arriskatuaz biziya edo
 iñoiz galdutzaz etsirik,
 bazkatutzeko¹ mutill koşkorrak
 eche utsian utzirik,
 eta emazte ona agurka
 itsas ertzera jachirik.

Bat bestearen ondoren ariñ
 treñero egalariyak,
 ezkutatuaz gazteluaren
 atzian laister guziyak,
 arrunt artuaz kanpoko *banda*
 nola itsas egaztiyak,
 emanaz ipar belch goiztarrari
 aizera bela churiyak
 eta frankotan josta aziyak
 beren sebera chikiyak.

Kai-arribako mutur aldian
 guztizko jende aldiyak,
 ikusgarrizko irteeura
 goizian aiñ goiz jaikiyak,

(1) Mantener.

goza beteak jartzen zituben
aiñ zeru eder garbiyak,
ikusirikan mugira gabe
olatu arro goitiyak...

¡o! zer pozkiroz echera ziran
kai puntako mirariyak.

Andre triste bat choko batian
mugituba egualdiyak,
ojukatzen du treñerua
onela penagarriyak:
—«Pachiku, ia suerte oncho bat»—
malkoz bustirik begiyak.

Arratsaldian biurturikan
goya illunabarrean,
iparra gogor erru gaberik
gallenduaz indarrean,
odoi trinkuak goizeko zeru
urdiñ alai ederrean,
salatuaz ¡ai! mancha lodiyak
itsas zabal barrenean,
goiz atsegiñak astindu eta
orroaz ta asarrean,
ziargituaz goi-beak bere
bildur bide azkarrean.

Itsaso lenaz loak artuba
esnatuta gogorrean,
zirudiyela jaikiya zala
oso kasketa charrean.

¡A! itsas gizon doakabeak
ala ziranak arkitu,
ontzi erbalan laguntza gabe
guziyak nairik zatitu,
munduan bada biyotz igarrik
berak lezake kupitu.

Gazteluaren atze aldera
kayetik nintzan goititu,

bere ertzetik ikusitzeko
naiz miñ bereak eritu
nola eldu zan ekaitz gogorra
goi-beak nairik urratu.

Bi puntetako sarrera dana
naspillan zuen zakartu,
arkaitz gogorra jo ta marruaz
purrutzatuaz saltatu,
nola miruak chori chikiya
lezaken azaparkatu,
orro mintsuan ala zetorren
zerbait nayeana tragatu.

Pareta zakar baten atzian
ezkutatuba zutikan,
zenbait gudaren oroitz ederrak
dituben gaztelutiltan,
ikusten asi ziraden odoi
beltz trinkuen azpitikan,
treña gaiñuak nola zetozen
itzuli nai egiñikan,
aurreratuaz itsas azpiyan
estu ta larriturikan,
ekaitz gaiztuen atzaparretik
iges egitiatikan,
eta ark berak errabiyartan
ez purrukatziatikan...

Izuz betea eta dardaraz
presaz kayera goitikan,
joan nintzan, an zer gertatutzen
ikusitzia gatikan.... [zan
uste det negar ayek entzuten
ditudala oraindikan.

An zeuden beren amak, andreak,
kayean, itsas ertzean,
an gorde nairik umeak izuz
gurasoaren atzean,

miñ gogor ura kabi eziñik
gaišo ayen biyotzean.

Itsas gizonak gudatzen ziran
olatua barrentzean,
nola brankaren alboa jo ta
marruaz urratutzean:
itsas azpiyan ezkutatu ta
gañera agertutzean,
bere atzetik orroatuaz
apurtu nayan jotzean....
gogorrenare ikaratzen du
ala nabarbendutzean.

Chit mingarrizko penak sentirik
bildu ziranak kayean,
jaso eziñik doakabeak
anima eri tristean,
arkitzen ziran etsimenduak
aiñ trantze estu beltzean,
beren errege mutuak fedez
zerura goitu nayeana,
erakutsiyaz suprimenduak
arpegiko ubelean,
beren biyotzak ikusirikan
alako trantze charrean.

Bela churiyak erriaturik
zorrozki datoz aurrera,
itsasoaren atzaparkari
iskinchoz gora ta beera,
jendia don kai muturrera
pillan gaztelu aldera,
ikusitzera negargarrizko
treñeruaren sarrera.

Nere biyotzak izuz nai zuben
bere lekutik atera,
ariyaziyaz treña gaiñuak
sartzen ala itsaspera,
oroigarriya izango zala
gizon ayen bukaera.

Ichumenian irichi zan bat
aize modura batetan,
tragatu nairik orroaz austen
ziraden olatuetan,
muturraz zuzen jarriyagatik
sarrerako bi puntetan,
non itsas kolpe batek trabeska
jarri du trantze ayetan,
jo ta apurtu nairikan dana
gazteluko arroketa....

Oju larri bat irten zitzaidan
biyotz barrendikan neri,
¡ai! otsegiñaz itsas gizonen
Birjiña Karmenguari.

Artian zortzi amar minutu
igarotuak etziran,
Konchako itsas sosegutsuan
bat bestiaren segiran
sartu zirala, goza besteak
ur legunaren mugiran.

Denak kontatu nituen laister
nere pozezko suspiran,
eta bakar bat an etzan falta,
denak echeratu ziran.

